

## SASIETA MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatuazaleko 70.2 artikuluan, azaroaren 28ko 2.568/1986 Erret Dekretu bidez onetsitako Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 196.2 artikuluan eta 1955eko ekainaren 17ko Dekretu bidez onetsitako Korporazio Lokalen Zerbitzu Erregelamenduko 7.2 artikuluan arabera, 2009ko uztailaren 9an Batzar Errektorean, «Sasieta mankomunitatea osatzen duten udalerrietako industrialdeetan eta enpresa-guneetan hondakinen bilketa-zerbitzua Arautzeko Ordenantzari» hasierako onespina eman zitzaion eta erabaki hori 2009ko uztailaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 136. alean argitaratu zen. Erreklamazioak aurkeztu ez direnez, behin-betiko onetsi da, eta horren ondorioz, testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, argitaratzen da.

Beasain, 2009ko urriaren 16a.—Juan Martín Aldareguía Echeverría, Lehendakaria.

(86)

(12256)

SASIETA MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN  
EREMUKO INDUSTRIALDE ETA ENPRESA-GUNEETAN  
HONDAKINEN BILKETA-ZERBITZUA  
ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. ATALA. Zerbitzuak emateko baldintza orokorrak eta eremua

1. artikulua. *Zerbitzuaren xedea.*

1. Ordenantza honen xedea Sasieta mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan dauden industrialde eta enpresa-guneetako komertzio, enpresa eta industrietan hiri-hondakinekin bateragarriak diren hondakinak biltzeko zerbitzua Sasieta mankomunitateak zein baldintzatan emango duen eta erabiltzaileak nola erabiliko duen arautzea da, hau da, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.

2. Zerbitzuaren erabiltzaile kategoria izango dute dagoen industrialde edo enpresa-guneko komertzio-, industria- edo zerbitzu-establezimendu guztiak. Erabiltzaile hauek indarrean dauden xedapenekin eta ordenantza honekin bat etorriko erabiliko dute zerbitzua.

2. artikulua. *Hiri-hondakinen eta hondakin bateragarrien definizioa.*

Apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, hiri-hondakinak edo udal-hondakinak honako hauek dira: Etxebizitza partikularretan sortutako hondakinak, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak, baita arriskutsutzat sailkatu ez direnak ere, baina izaera edo konposizioa kontuan hartuta lehen aipatu ditugun lekuetan edo jardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak direnak.

3. artikulua. *Salbuespenak.*

1. Hondakinak biltzeko zerbitzu erkidetuak ondorengo hondakinak ez ditu jasoko:

— Une bakoitzean indarrean dagoen ingurumen legedian «arriskutsu» gisa tipifikatutako hondakinak. Hala nola, pinturak, tindagaiak, erretxinak, kolak, disolbatzaileak, produktu kimikoak, pestizidak, hodi fluoreszenteak, lanparak, pilak, bateriak, erabilitako olioak, likido hidraulikoak, osasun- eta albaitaritze-zerbitzuetakoak edo ikerketako hondakinak eta honelako produktuak eduki dituzten ontziak.

## MANCOMUNIDAD SASIETA

*Anuncio*

De conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el artículo 196.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2.586/1986, de 28 de noviembre, y el artículo 7.2 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales aprobado por Decreto de 17 de junio de 1955, se publica en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el texto íntegro de la «Ordenanza reguladora del servicio de recogida de residuos en polígonos industriales y empresariales del ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad Sasieta», aprobado definitivamente, al no haberse producido reclamaciones a la aprobación inicial que se otorgó en la Junta Rectora del 9 de julio de 2009, y que se expuso a información pública en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 136 de 22 de julio de 2009.

Beasain, a 16 de octubre de 2009.—El Presidente, Juan Martín Aldareguía Echeverría.

(86)

(12256)

ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE  
RESIDUOS EN POLIGONOS INDUSTRIALES Y EMPRESARIALES  
DEL AMBITO DE LOS MUNICIPIOS QUE INTEGRAN  
LA MANCOMUNIDAD SASIETA

SECCION I. Condiciones generales y ámbito de prestación de los servicios

Artículo 1. *Objeto del servicio.*

1. Es objeto de la presente ordenanza, la regulación de las condiciones en que la Mancomunidad Sasieta prestará y el usuario utilizará, los servicios destinados a la recogida de residuos asimilables a urbanos generados en comercios, empresas e industrias ubicadas en polígonos industriales y empresariales de los municipios que integran la Mancomunidad Sasieta, esto es, en Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain y Zumarraga.

2. Tienen la categoría de usuarios a los efectos de la prestación del servicio, todos los establecimientos comerciales, industriales o de servicio del polígono que corresponda, quienes lo utilizarán de acuerdo con las disposiciones vigentes y con la presente ordenanza.

Artículo 2. *Definición de residuos urbanos y asimilables.*

De conformidad con lo establecido en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, serán residuos urbanos o municipales los generados en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios, así como todos aquellos que no tengan la calificación de peligrosos y que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los producidos en los anteriores lugares o actividades.

Artículo 3. *Exclusiones.*

1. No serán admisibles en el servicio de recogida mancomunado los siguientes residuos:

— Residuos que estén tipificados como «peligrosos» en la legislación medioambiental vigente en cada momento, tales como pinturas, tintes, resinas, pegamentos, disolventes, productos químicos, pesticidas, tubos fluorescentes, lámparas, pilas, baterías, aceites usados, líquidos hidráulicos, los residuos de servicios médicos o veterinarios o de investigación, envases que hayan contenidos dichos productos etc.

— Obretako eta konponketako eraikuntza hondakinak eta ezertarako balio ez duten hondarrak.

— Produkzio prozesuetan bereziki sortutako hondakin industrialak, etxebizitza partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinekin bateragarriak ez direnak.

— Berariazko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera kudeatu beharreko hondakinak (gurpilak, hondakin sanitarioak, erradiaktiboak, animalia jatorrikoak, abelazkuntzakoak etab.), baldin eta kudeaketa horretan, ingurumenaren eta segurtasunaren ikuspegitik begiratura, hiri hondakinei buruz exijitzen diren betekizunez bestelakoak bete behar badira.

— Lorategietako mantenu lanetan sortutako hondakinak.

2. Hondakinak biltzeko zerbitzuak ondorengo ezaugarriak dituzten hondakinak ez ditu onartuko:

— %65etik gorako hezetasuna duten hondakinak.

— Hauts itxurako hondakin solidoak edota kutsadura edo toxikotasun arriskua eragin lezaketen lohiak.

— Sutan aurkezten diren hondakinak.

— Giro tenperatura baino 10.°C gehiagoko tenperaturan dauden hondakinak.

— Bere ezaugarri bereziengatik, bilketa eta garraiatze zerbitzuan edota ondorengo balioztatze edo ezabaketan eragozpen garrantzitsuak sortzen dituzten hondakinak. Honelakoetan Mankomunitateak behartu dezake hondakinaren ekoizlea edo edukitzailea, hondakin horiek bildu aurretik ahal den neurrian ezaugarri berezi horiek kentzera edo murriztera, edo bestela hondakin horiek modu eta leku egokian uztera. Gainera, behar bezala justifikatuta, hondakinaren edukitzailea behartu dezake hondakin hori bere kontura kudeatzera.

#### 4. artikulua. Zerbitzua derrigorrez erabili eta hartzea.

1. Hondakinak biltzeko zerbitzuak interes sanitario eta ingurumenekoak dituenek, derrigorrezkotzat izendatzen da zerbitzu hori erabiltzea eta hartzea. Hori dela eta, industrialde edo enpresa-gune batean zerbitzu hau eskaintzen bada, bertan dauden establezimendu edo lokaletako titular, errentari edo jabeen zerbitzuan alta emango zaie.

2. Hiri-hondakinak edo hondakin bateragarriak dituztenek Sasieta mankomunitateari eman behar dizkiote derrigorrez, ordenantza honek zehazten dituen baldintzetan, honek birziklatu, baloratu edo ezaba ditzan.

#### 5. artikulua. Hondakinak bertan behera uztea.

1. Debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe bertan behera utzi, erre, isuri edo ezabatzea eta horien kudeaketa zailduko duen edonolako nahasketa edo diluzio egitea. Erabiltzaileak hondakin horiek Sasieta mankomunitateak jarritako ordutegi eta baldintzen arabera uztera behartuta daude.

2. Arau-hausleek bertan behera utzitako hondakinak kendu eta eragindako ingurua garbitu beharko dute, dagozkien zigorrek alde batera utzita.

#### 6. artikulua. Hondakinak manipulatzea.

Debekatuta dago hondakinak ontziz aldatu edo manipulatzea, bilketa-zerbitzu erkidetuak edo Sasieta mankomunitateak berariaz baimendutako pertsonalak izan ezik.

— Escombros y materiales de desecho originados en obras y reparaciones.

— Residuos específicamente industriales originados en procesos productivos, que no sean asimilables a los producidos en los domicilios particulares, comercios, oficinas y servicios.

— Aquellos residuos cuya gestión esté regulada en normativa sectorial específica y esté sujeta a requerimientos especiales desde el punto de vista ambiental o de seguridad y salud, diferentes de los exigidos para residuos urbanos (neumáticos, residuos sanitarios, radiactivos, de origen animal, ganaderos, etc.).

— Residuos de mantenimiento de zonas ajardinadas.

2. Tampoco serán admisibles en el servicio de recogida, los residuos que presenten las siguientes características:

— Residuos que se presenten con una humedad superior al 65%.

— Residuos sólidos pulverulentos o fangos que presenten riesgos de contaminación o toxicidad.

— Residuos que se presenten en estado de ignición.

— Residuos que presenten una temperatura superior en 10.° C a la temperatura ambiente.

— Los residuos que, por sus especiales características puedan producir trastornos importantes en el servicio de recogida y transporte o en su posterior valorización o eliminación. En este caso, la Mancomunidad podrá obligar al productor o poseedor de los mismos a que, previamente a su recogida, adopte las medidas necesarias para eliminar o reducir, en la medida de lo posible, dichas características o que los deposite en la forma y lugar adecuados. Además, por motivos justificados, podrá obligar a los poseedores a gestionarlos por sí mismos.

#### Artículo 4. Uso y recepción obligatoria del servicio.

1. Dado el interés sanitario y ambiental del Servicio de recogida de residuos urbanos y asimilables, se declara obligatorio su uso y recepción, por lo que el simple hecho de prestarse el servicio en un polígono industrial o empresarial supondrá el alta en el mismo de todos los titulares, arrendatarios o propietarios de los establecimientos o locales que en él existan.

2. Los poseedores de residuos urbanos o asimilables, estarán obligados a entregarlos a la Mancomunidad Sasieta para su reciclado, valorización o eliminación, en las condiciones en que determine la presente ordenanza.

#### Artículo 5. Abandono de residuos.

1. Se prohíbe el abandono, quema, vertido o eliminación incontrolada de residuos y toda mezcla o dilución de los mismos que dificulte su gestión, estando obligados los usuarios a depositarlos con arreglo a los horarios y condiciones establecidas por la Mancomunidad Sasieta.

2. Los infractores están obligados a retirar los residuos abandonados y a limpiar el área afectada con independencia de las sanciones que correspondan.

#### Artículo 6. Manipulación de residuos.

Queda prohibido el trasvase o manipulación de los residuos, a excepción de los servicios de recogida mancomunados o personal expresamente autorizado por la Mancomunidad Sasieta.

*7. artikulua. Bilketaz arduratzen den pertsonala legitimizea.*

Hondakinak biltzen aritzen den pertsonala bakarrik arduratuko da hondakinak jaso eta eramateaz. Hondakin horiek beste edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen dionak, horien ondorioz sortutako edozein kalteri biek bat eginda erantzun beharko dio, jar daitezkeen zigorrak alde batera utzita.

*8. artikulua. Hondakinak biltzeko baimenak.*

1. Sasieta mankomunitateko zerbitzuak edo zerbitzuek bakarrik dute hiri-hondakinak edo hondakin bateragarriak jasotzeko ahalmena. Hori dela eta, debekatuta dago beste edozein pertsona fisiko edo juridikok hondakinak biltzea, ondorengo atalean xedatutakoek izan ezik.

2. Aurrez Sasieta mankomunitatearen baimena jaso dutenek bakarrik izango dute hiri-hondakinak edo hondakin bateragarriak jasotzeko aukera. Baimena jaso dutenek agiri bidezko erregistroa osatu beharko dute eta bertan honakoak jasoko dira: Kudeatutako hondakinen kopurua, izaera, jatorria, helburua, bilketaren maiztasuna, garraio bidea eta baloratzeko metodoa. Agiri hauek mankomunitatearen esku jarriko dira, honek eskatzen dituen bakoitzean. Urte natural bakoitzari dagokion informazioa hurrengo bost urtean gorde beharko da.

3. Sasieta mankomunitateak hiri-hondakinak eta bateragarriak kudeatzeko jarduerak zuzenean egin ahal izango ditu edo bestela toki araubideari buruzko legedian aurreikusitako beste edozein kudeaketa modu erabil dezake.

*9. artikulua. Zerbitzua emateagatik tasa.*

Sasieta mankomunitatea osatzen duten udaletxeek urtero hondakinak biltzeko zerbitzua emateari dagokion tasa ezarriko dute. Horretarako, ahal den neurrian, proportzionaltasun printzipioa aplikatuko du sortutako hondakin kopuruaren eta ordaindu beharreko kopuruaren artean eta baita tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa, hau da, tarifa murriztea bultzatuko da, berrerabiltzeak, birziklatzeak eta konpostatzeak azken tratamenduaren aurrean lortutako mailaren arabera. Erabiltzaileek tasa hori ordainduko dute, erkidutako udalerrri bakoitzari dagokion ordenantza fiskalak xedatutakoarekin bat etorritik.

II. ATALA. Hondakinen bilketa-zerbitzua

*10. artikulua. Bilketa-zerbitzua.*

Bilketa-zerbitzuak egituratzeko ondorengo hondakinak hartuko dira kontuan:

1. Hondakin inerte arruntak, nahasian, ezin daitezkeenak berreskuratu edo baloratu eta beraz, ezabatzea bideratuko direnak.

2. Batik bat izaera organikoa duten hondakinak, nahasian, jabetxeetan, jangeletan, elikagaiak manipulatu dituzten enpresetan eta abarretan sortutakoak.

3. Beren konposizio edo ezaugarriengatik tratatu ondoren birziklapenaren bidez berreskuratu, berrerabili edo balioa har dezaketen hondakinak; hala nola, papera, kartoia, egurra eta tamaina handiko zenbait traste (altzariak, tresna elektriko eta elektronikokoak). Bilketa hau beste zenbait materialetara zabaldu ahal izango da teknikoko eta ekonomikoki bideragarria denean Zerbitzua beste material batzuetara zabaltzeko erabakia hartzea Sasieta mankomunitateko Batzar Errektoreari dagokio.

*Artículo 7. Legitimación del personal encargado de la recogida.*

De la recepción y retirada de los residuos únicamente se hará cargo el personal dedicado a la recogida de los mismos. Quien entregue dichos residuos a cualquier otra persona física o jurídica deberá responder solidariamente con esta por cualquier perjuicio que se genere a causa de aquellos, independientemente de las sanciones a que hubiere lugar.

*Artículo 8. Autorizaciones de recogida.*

1. Solamente está facultado para realizar la recogida de residuos urbanos o asimilables el servicio o los servicios de la Mancomunidad Sasieta. Consiguientemente, queda prohibido que cualquier otra persona, física o jurídica, realice operaciones de recogida de residuos, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

2. Únicamente podrán realizar labores de recogida de residuos urbanos o asimilables quienes hayan obtenido una autorización previa de la Mancomunidad Sasieta. Estos deberán llevar un registro documental en el que figuren la cantidad, naturaleza, origen, destino, frecuencia de recogida, medio de transporte y método de valorización de los residuos gestionados. Esta documentación estará a disposición de la Mancomunidad a petición del mismo. La documentación referida a cada año natural deberá mantenerse durante los cinco años siguientes.

3. La Mancomunidad Sasieta podrá realizar las actividades de gestión de residuos urbanos o asimilables directamente o mediante cualquier otra forma de gestión prevista en la legislación sobre régimen local.

*Artículo 9. Tasa por la prestación del servicio.*

Los ayuntamientos integrantes de la Mancomunidad Sasieta establecerán anualmente la tasa correspondiente a la prestación del servicio de recogida de residuos, aplicando en la medida de lo posible, el principio de proporcionalidad entre cantidad de residuos generados y cantidad a abonar y el principio de discriminación positiva de la tarifa, potenciando una reducción de la tarifa en función del grado de reutilización, reciclaje y compostaje alcanzado frente al tratamiento final. Los usuarios procederán al pago de las tasas de acuerdo con lo que establezca la ordenanza fiscal correspondiente de cada municipio mancomunado.

SECCION II. Del servicio de recogida de residuos

*Artículo 10. Servicio de recogida.*

Al objeto de estructurar los servicios de recogida se contemplarán actuaciones hacia los siguientes residuos:

1. Residuos ordinarios inertes mezclados sin posibilidad de recuperación o valorización y cuyo destino sea la eliminación.

2. Residuos de naturaleza fundamentalmente orgánica mezclados generados en restaurantes, comedores, empresas de manipulación de alimentos, etc.

3. Residuos que por su composición o características puedan ser objeto de tratamiento y posterior recuperación vía reciclado, reutilización o revalorización, como el papel, el cartón, la madera y determinados enseres voluminosos (mobiliario, aparatos eléctricos y electrónicos). Esta recogida podrá ampliarse a otros materiales en el momento en que su recuperación sea técnica y económicamente viable. Esta ampliación será efectiva tras el correspondiente acuerdo de la Junta Rectora de la Mancomunidad Sasieta.

4. Beren ezaugarriengatik tratamendu berezia behar duten hondakinak. Horrelakoetan mankomunitateak bilketa bereziak sustatu eta koordinatuko ditu Eusko Jaurlaritzak baimendutako kudeatzaileen bitartez.

### III. ATALA. Hondakin inerte arrunten bilketa-zerbitzua

#### 11. artikulua. Hondakin inerte arruntak biltzea.

Honelako hondakinak biltzeko zerbitzua ondorengo zehaztapenekin bat etorritz egingo da:

1. Beren ezaugarriengatik berrerabili, birziklatu edo berriz baloratu ezin daitezkeen hondakin inerte berreskurazien nahasketak bilduko dira.

2. Hondakin hauek establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari mankomunitateak emandako edukiontzietan sartuta entregatuko dira derrigorrez. Edukiontzi horiek mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatukoak izango dira. Hasera batean, kolore berdeko bi edukiontzi modelo erabiltzea aurreikusi da, bata 1.100 litro eta bestea 360 litrotako ahalmena dutenak, dentsitate altuko injekzio bidezko polietileno fabrikatutakoak. Mankomunitateak modelo bat edo bestea entregatuko du, ekoizle bakoitzak sortutako hondakinen arabera. Mankomunitateak zerbitzuarentzako egokitzat jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko eskubidea izango du. Edukiontzi guztiek mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta eramango dute eta norena den jakiteko termoinpresio bidez grabatutako zenbaki korrelatiboa, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

3. Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari zuzenean emandako edukiontziak erabili ahal izango dira soilik. Edukiontzi hauek derrigorrez lokalaren barruan egingo dira.

4. Edukiontziak gauez hustuko dira eta horretarako, bilketa-bezperan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 21,00ak bitartean aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa-zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarri. Dena dela, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokie toki hauek zehaztea.

5. Edonola ere, zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien edukiontziak bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa-zerbitzua edukiontzietatik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinetaz ez da arduratuko.

6. Edukiontzietan botatutako hondakinak gaueko bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa-zerbitzuak edukiontzi hori berriz ere hartu duen leku berean utzi beharko du.

7. Edukiontziak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, komertzio, industria edo lokal sartuko dute berriz, goizeko 9.00ak baino lehen.

8. Ezingo da Sasieta mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak zuzenean emandako edukiontziak aparteko bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxak, zakuak, paletak, kaiolak edo bestelako ontzirik ere. Edukiontzien hustuketa eta bilketa ezingo da establezimendu, komertzio, industria edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegia eta erabiltzailearen jardura-ordutegia bat datozeanean edota zaintzailea dutenean ere.

4. Residuos especiales que por sus características precisen de tratamiento específico. En este caso la Mancomunidad promoverá y coordinará las recogidas especiales a través de gestores autorizados por el Gobierno Vasco.

### SECCION III. Del servicio de recogida de residuos ordinarios inertes

#### Artículo 11. Recogida de residuos ordinarios inertes.

El servicio de recogida de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de mezclas de residuos de naturaleza inerte que por sus características no puedan ser recuperados mediante su reutilización, reciclado o revalorización.

2. Los residuos deberán entregarse obligatoriamente introducidos en los contenedores que la Mancomunidad facilitará a cada establecimiento, comercio, industria o local según modelo normalizado que será aprobado por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad. Inicialmente se prevé utilizar dos modelos de contenedores de color verde, uno de 1.100 litros y otro de 360 litros de capacidad, fabricados en polietileno inyectado de alta densidad. La Mancomunidad entregará un modelo u otro, en función de la generación de residuos del productor. La Mancomunidad se reserva la potestad de utilizar otro tipo de contenedores o sistemas de recogida de residuos que considere apropiados para el servicio. Todos los contenedores llevarán serigrafiado el logotipo de la Mancomunidad y dispondrán de un número correlativo identificativo grabado por termopresión que se asignará a cada usuario del servicio.

3. Los contenedores facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida serán de uso individual por parte de cada establecimiento, comercio, industria o local. Estos contenedores permanecerán obligatoriamente en su interior.

4. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno y para ello, la víspera de la recogida, los productores sacarán los contenedores entre las 18,00 y las 21,00 h. y los colocarán junto a la puerta de su local, en lugares que permitan al servicio de recogida acceder a ellos sin dificultad, correspondiendo en todo caso la determinación de los lugares concretos a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

5. Los usuarios del servicio tendrán en cuenta que, en cualquier caso, tanto el recipiente que se les entregue como su contenido será responsabilidad suya. Por tanto, el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores.

6. Una vez vaciada la carga del contenedor en el vehículo de recogida nocturno, el servicio estará obligado a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

7. Los usuarios del servicio introducirán nuevamente los contenedores, ya vacíos, en su establecimiento, comercio, industria o local, estableciéndose como hora límite las 9.00 de la mañana.

8. No estará permitida la utilización de otro tipo de contenedores que no hayan sido entregados directamente por la Mancomunidad Sasieta o por el servicio de recogida, ni la utilización por parte de los productores de cajas, sacos, palets, jaulas u otros recipientes para la entrega de residuos. Tampoco estará permitida la realización de labores de recogida y vaciado de contenedores en el interior de los establecimientos, comercios, industrias o locales, ni siquiera cuando el horario de recogida coincida con el horario de actividad del usuario o dispongan de servicio de vigilante.

9. Erabiltzaileak gutxienez edukiontzi normalizatu bat derrigorrez hartu beharko du, eta honek ordenantza honen xede diren hondakinak biltzeko zerbitzurako bakarrik erabili ahal izango du.

10. Edukiontzi horietan ezin dira gaika bilduko diren hondakinak bota, adibidez, papera, kartoia, egurra edo mankomunitateak gaika biltzeko zerbitzu berezia eskaintzen duen beste hondakinik. Edukia zein den ziurtatu ondoren bilketa-zerbitzuak hondakinak ez jasotzea erabaki dezake.

11. Edukiontzian izaera arrisksua duten hondakinak bota direla egiaztatzen bada, bilketa-zerbitzuak eduki oso atzera botako du eta zerbitzuko arduradunak mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridikoei jakinaraziko die, hauek dagokion zigor-espedienteari hasiera eman diezaiozten.

*12. artikulua. Hondakin inerte arruntak biltzeko ordutegia.*

1. Edukiontzian bildutako eta ezabatzeko helburua duten hondakin inerte arruntak gutxienez astean bitan bilduko dira. Maiztasun hau benetako beharren arabera aldatu ahal izango da, baina horretarako aurrez Sasieta mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena beharko da.

2. Edukiontziak gauetz hustuko dira, 21,00ak eta 04,30 bitartean.

3. Bilketa-eguna jaieguna baldin bada ez da bilketa zerbitzurik emango.

#### IV. ATALA. Hondakin organikoen bilketa-zerbitzua

*13. artikulua. Hondakin organikoen bilketa.*

Honelako hondakinak ondorengo zehaztapenen arabera bilduko dira:

1. Batik bat biodegradagarriak diren edo izaera organikoa duten hondakinak bilduko dira, ostalaritzako establezimenduetan, enpresetako jangeletan, elikagaiak manipulatzin dituzten enpresetan eta, industrialde edo enpresa-gunean egonik, beren produkzio-prozesuetan hondakin organikoak edo biodegradagarriak sortzen dituzten establezimenduetan sortutakoak.

2. Hondakin hauek establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari mankomunitateak emandako edukiontzietan sartuta entregatuko dira derrigorrez. Edukiontzi horiek mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatuak izango dira. Hasera batean, kolore berdeko edukiontzi modelo bat erabiltzea aurreikusi da, 1.100 litro ahalmena duena, dentsitate altuko injekzio bidezko polietileno fabrikatutakoa. Mankomunitateak zerbitzuarentzako egokitutako jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko eskubidea izango du. Edukiontzi guztiek mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta eramango dute eta norena den jakiteko termoinpresio bidez grabatutako zenbaki korrelatiboa, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

3. Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari zuzenean emandako edukiontziak erabili ahal izango dira soilik. Edukiontzi hauek derrigorrez lokalaren barruan egongo dira.

4. Edukiontziak gauetz hustuko dira eta horretarako, bilketa-bezperan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 22,00ak bitartean aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa-zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarri. Dena dela, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokie toki hauek zehaztea.

9. Será obligatoria la recepción por parte de los usuarios de al menos un contenedor normalizado, quien únicamente podrá utilizarlo para el servicio de recogida de residuos objeto de la presente ordenanza.

10. No se permite el depósito en estos contenedores de residuos que vayan a ser objeto de recogida selectiva, tales como el papel-cartón y la madera u otros residuos para los que la Mancomunidad disponga de un servicio específico de recogida selectiva, pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido.

11. En el caso de que se comprobara que en el contenedor se han introducido residuos considerados como peligrosos, el servicio de recogida rechazará todo su contenido y el responsable del servicio informará a los Servicios Técnicos y Jurídicos de la Mancomunidad para que estos inicien el correspondiente expediente sancionador.

*Artículo 12. Horario de recogida de residuos ordinarios inertes.*

1. Se establece en un mínimo de dos veces por semana la frecuencia de recogida de residuos ordinarios inertes depositados en contenedor y cuyo destino sea su eliminación. Esta frecuencia podrá ser modificada en función de las necesidades reales previa Resolución del Presidente de la Mancomunidad Sasieta.

2. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno, entre las 21,00 y las 04,30 h.

3. El servicio de recogida no se efectuará cuando coincida con un día festivo.

#### SECCION IV. Del servicio de recogida de residuos organicos

*Artículo 13. Recogida de residuos orgánicos.*

El servicio de recogida de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de residuos de naturaleza fundamentalmente orgánica o biodegradable generados en establecimientos de hostelería, comedores de empresa, empresas de manipulación de alimentos y todos aquellos establecimientos que, estando ubicados dentro del polígono industrial correspondiente generen en su proceso productivo residuos de naturaleza orgánica o biodegradable.

2. Los residuos deberán entregarse obligatoriamente introducidos en los contenedores que la Mancomunidad facilitará a cada establecimiento, comercio, industria o local según modelo normalizado que será aprobado por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad. Inicialmente se prevé utilizar un modelo de contenedor de color verde de 1.100 litros de capacidad, fabricado en polietileno inyectado de alta densidad. La Mancomunidad se reserva la potestad de utilizar otro tipo de contenedores o sistemas de recogida de residuos que considere apropiados para el servicio. Todos los contenedores llevarán serigrafiado el logotipo de la Mancomunidad y dispondrán de un número correlativo identificativo grabado por termoimpresión que se asignará a cada usuario del servicio.

3. Los contenedores facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida serán de uso individual por parte de cada establecimiento, comercio, industria o local. Estos contenedores permanecerán obligatoriamente en su interior.

4. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno y para ello, la víspera de la recogida, entre las 18,00 y las 22,00 h., los productores sacarán los contenedores y los colocarán junto a la puerta de su local, en lugares que permitan al servicio de recogida acceder a ellos sin dificultad, correspondiendo en todo caso la determinación de los lugares concretos a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

5. Edonola ere, zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien edukiontzia bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa-zerbitzua edukiontzietatik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinak ez da arduratuko.

6. Edukiontzietan botatako hondakinak gaueko bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa-zerbitzuak edukiontzi hori berriz ere hartu duen leku berean utzi beharko du.

7. Edukiontziak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, komertzio, industria edo lokal sartuko dute berriro, goizeko 9,00ak baino lehen.

8. Ezingo da Sasieta mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak zuzenean emandako edukiontziak aparteko bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxak, zakuak, paletak, kaiolak edo bestelako ontzirik ere. Edukiontzien hustuketa eta bilketa ezingo da establezimendu, komertzio, industria edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegia eta erabiltzailearen jardura-ordutegia bat datozenean edota zaintzailea dutenean ere.

9. Edukiontzi horietan ezin dira gaika bilduko diren hondakinak bota, adibidez, papera, kartoia, egurra edo mankomunitateak gaika biltzeko zerbitzu berezia eskaintzen duen beste hondakinik. Edukia zein den ziurtatu ondoren bilketa-zerbitzuak hondakinak ez jasotzea erabaki dezake. Era berean, ahalik eta hondakin gehien berreskuratu asmoz, establezimendu hauetan sor daitezkeen beirazko ontziak ere ez dira onartuko. Beirazko hondakin horiek botatzeko establezimendu horietatik hurbil erabilerara arunteko iglu-edukiontziak jarriko dira, hiri-bidean kokatuta dauden antzekoak. Honelako hondakinak sortzen dituztenek iglu-edukiontzietan sartuko dituzte, beti ere edukiontzi horiek erabiltzeko aplikazio-arau orokorrak errespetatuz.

10. Edukiontzian izaera arriskutsua duten hondakinak bota direla egiaztatzen bada, bilketa-zerbitzuak eduki oso atzera botako du eta zerbitzuko arduradunak mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridikoei jakinaraziko die, hauek dagokion zigor-espeditentari hasiera eman diezaioten.

#### 14. artikulua. Hondakin organikoak biltzeko ordutegia.

1. Hondakin organikoak establezimendu, komertzio, industria edo lokala kokatzen den industrialde eta enpresa-gunea barnebiltzen duen udalerraren hiriguneak duen maiztasun berberarekin bilduko dira. Maiztasun hau Sasieta mankomunitateko Lehendakariaren ebazpenaren bidez aldatu ahal izango da.

2. Edukiontziak dagokion udalerriko hirigunean udal-hondakinak biltzeko ezarrita duen egutegi eta ordutegi berberak hustuko dira.

3. Bilketa jaiegunetan ere egingo da, Urte Berri egunean (urtarrilak 1) eta Eguberri egunean (abendua 25) izan ezik.

#### V. ATALA. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa-zerbitzua

##### 15. artikulua. Papera eta kartoia gaika biltzea.

Honelako hondakinak gaika biltzeko zerbitzua ondorengo zehaztapenekin bat etorritik egingo da:

1. Birziklatuz berreskuratu daitezkeen administrazio-bulegotako papera eta kartoiak bilgarriak bilduko dira.

5. Los usuarios del servicio tendrán en cuenta que, en cualquier caso, tanto el recipiente que se les entregue como su contenido será responsabilidad suya. Por tanto, el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores.

6. Una vez vaciada la carga del contenedor en el vehículo de recogida nocturno, el servicio estará obligado a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

7. Los usuarios del servicio introducirán nuevamente los contenedores, ya vacíos, en su establecimiento, comercio, industria o local, estableciéndose como hora límite las 9,00 de la mañana.

8. No estará permitida la utilización de otro tipo de contenedores que no hayan sido entregados directamente por la Mancomunidad Sasieta o por el servicio de recogida, ni la utilización por parte de los productores de cajas, sacos, palets, jaulas u otros recipientes para la entrega de residuos. Tampoco estará permitida la realización de labores de recogida y vaciado de contenedores en el interior de los establecimientos, comercios, industrias o locales, ni siquiera cuando el horario de recogida coincida con el horario de actividad del usuario o dispongan de servicio de vigilante.

9. No se permite el depósito en estos contenedores de residuos que vayan a ser objeto de recogida selectiva como el papel-cartón y la madera u otros residuos para los que la Mancomunidad disponga de un servicio específico de recogida selectiva, pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido. Asimismo y al objeto de recuperar el máximo posible de residuos, tampoco se permitirá la recuperación de envases de vidrio que puedan generarse en estos establecimientos. Para posibilitar la entrega de estos residuos de vidrio se instalarán en las proximidades de los citados establecimientos, contenedores de uso común tipo iglú, similares a los ubicados en las vías urbanas, donde los generadores de estos residuos podrán introducirlos respetando las normas generales de aplicación para la utilización de estos contenedores.

10. En el caso de que se comprobara que en el contenedor se han introducido residuos considerados como peligrosos, el servicio de recogida rechazará y el responsable del servicio informará a los Servicios Técnicos y Jurídicos de la Mancomunidad para que estos inicien el correspondiente expediente sancionador.

#### Artículo 14. Horario de recogida de residuos orgánicos.

1. La frecuencia de recogida de residuos orgánicos será la misma que tenga asignada el casco urbano del municipio en cuyo ámbito se encuentre el polígono industrial en el que radica el establecimiento, comercio, industria o local. Esta frecuencia podrá ser modificada previa Resolución del Presidente de la Mancomunidad Sasieta.

2. Los contenedores se vaciarán en el mismo horario de recogida de residuos domiciliarios que tenga asignado el casco urbano del municipio en cuestión.

3. La recogida se efectuará inclusive en días festivos, salvo Año Nuevo (1 de enero) y Navidad (25 de diciembre).

#### SECCION V. Del servicio de recogida selectiva de papel-cartón

##### Artículo 15. Recogida selectiva de papel-cartón.

El servicio de recogida selectiva de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de papel de oficinas administrativas y embalajes de cartón que pueden ser recuperados mediante su reciclado.

2. Hondakin hauek establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari mankomunitateak emandako ontzietan sartuta entregatuko dira derrigorrez. Ontzi horiek mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatukoak izango dira. Hasera batean, kolore urdineko bi edukiontzi modelo erabiltzea aurreikusi da, bata 1.100 litro eta bestea 360 litrotako ahalmena dutenak, dentsitate altuko injekzio bidezko polietileno fabrikatutakoak eta baita altzairu herdoilgaitzarekin egindako kaiola gurpilduna, 60 zm.ko luzera, 80 zm.ko zabalera eta 170 zm.ko altuera duena. Mankomunitateak edukiontzi hauetako bat edo kaiola entregatuko du, ekoizle bakoitzak sortutako hondakinen arabera. Mankomunitateak zerbitzuarentzako egokitzat jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko eskubidea izango du. Edukiontzi guztiek mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta eramango dute eta norena den jakiteko termoinpresio bidez grabatutako zenbaki korrelatiboa, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

3. Kartoizko kaxak behar bezala txukunduta eta tolestuta eta bulegoko papera korapilatutako poltsatan sartuko dira emandako edukiontzi eta kaiolatan.

4. Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari zuzenean emandako edukiontziak eta kaiolak erabili ahal izango dira soilik. Edukiontzi eta kaiola hauek derrigorrez lokalaren barruan egongo dira.

5. Edukiontziak eta kaiolak gauz hustuko dira eta horretarako, bilketa-bezperan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 22,00ak bitartean aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa-zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarri. Dena dela, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokien toki hauek zehaztea.

6. Edonola ere, zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien ontzia bai barruko edukia beren ardurapekoak direla. Beraz, bilketa-zerbitzua edukiontziatetik kanpo edo inguruan egon daitezkeen hondakinak ez da arduratuko.

7. Edukiontzietan edo kaiolatan botatutako hondakinak gaueko bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa-zerbitzuak ontzi hori berriz ere hartu duen leku berean utzi beharko du.

8. Edukiontziak eta kaiolak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, komertzio, industria edo lokal sartuko dute berriz, goizeko 9.00ak baino lehen.

9. Ezingo da Sasieta mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak zuzenean emandako edukiontziak eta kaiolaz aparteko bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxak edo bestelako ontzirik ere. Edukiontziak eta kaiolen hustuketa eta bilketa ezingo da establezimendu, komertzio, industria edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegia eta erabiltzailearen jarduera-ordutegia bat datozenean edota zainzaila dutenean ere.

10. Edukiontzi horietan ezin dira papera eta kartoia kutsatu eta birziklatzea oztopatu dezaketenean beste hondakinak bota (film erako plastikoa, poliespana, plastikozko edo metalezko zumitzak, txirbila eta abar). Edukia zein den ziurtatu ondoren bilketa-zerbitzuak hondakinak ez jasotzea erabaki dezake.

11. Edukiontzian izaera arriskutsua duten hondakinak bota direla egiaztatzen bada, bilketa-zerbitzuak eduki oso atzera botako du eta zerbitzuko arduradunak mankomunitateko zerbitzu tekniko eta juridikoei jakinaraziko die, hauek dagokion zigor-espeditentari hasiera eman diezaioten.

2. Los residuos deberán entregarse obligatoriamente introducidos en los recipientes que la Mancomunidad facilitará a cada establecimiento, comercio, industria o local según modelo normalizado que será aprobado por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad. Inicialmente se prevé utilizar dos modelos de contenedores de color azul, uno de 1.100 litros y otro de 360 litros de capacidad, fabricados en polietileno inyectado de alta densidad, así como una jaula metálica inoxidable dotada de ruedas con unas medidas aproximadas de 60 cm. de longitud, 80 cm de ancho y 170 cm de altura. La Mancomunidad entregará uno de los dos contenedores o bien la jaula, en función de la generación de residuos del productor. La Mancomunidad se reserva la potestad de utilizar otro tipo de contenedores o recipientes o sistemas de recogida de residuos que considere apropiados para el servicio. Todos los contenedores llevarán serografiado el logotipo de la Mancomunidad y dispondrán de un número correlativo identificativo grabado por termoinpresión que se asignará a cada usuario del servicio.

3. Las cajas de cartón deben depositarse de forma ordenada y debidamente plegadas y el papel de oficina en bolsas anudadas, en los contenedores y jaulas suministrados.

4. Los contenedores y jaulas facilitados por la Mancomunidad o el servicio de recogida serán de uso individual por parte de cada establecimiento, comercio, industria o local. Estos contenedores y jaulas permanecerán obligatoriamente en su interior.

5. Los contenedores y jaulas se vaciarán en horario nocturno y para ello, la víspera de la recogida, los productores sacarán los contenedores entre las 18,00 y las 20,00 h. y los colocarán junto a la puerta de su local, en lugares que permitan al servicio de recogida acceder a ellos sin dificultad, correspondiendo en todo caso la determinación de los lugares concretos a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

6. Los usuarios del servicio tendrán en cuenta que, en cualquier caso, tanto el recipiente que se les entregue como su contenido será responsabilidad suya. Por tanto, el servicio de recogida no se hará cargo de los residuos que puedan encontrarse en el exterior o alrededores de los contenedores.

7. Una vez vaciada la carga del contenedor o jaula en el vehículo de recogida nocturno, el servicio estará obligado a dejarlo en el lugar del que lo ha retirado.

8. Los usuarios del servicio introducirán nuevamente los contenedores y jaulas, ya vacíos, en su establecimiento, comercio, industria o local, estableciéndose como hora límite las 9.00 de la mañana.

9. No estará permitida la utilización de otro tipo de contenedores y jaulas que no hayan sido entregados directamente por la Mancomunidad Sasieta o por el servicio de recogida, ni la utilización por parte de los productores de cajas u otros recipientes para la entrega de residuos. Tampoco estará permitida la realización de labores de recogida y vaciado de contenedores y jaulas en el interior de los establecimientos, comercios, industrias o locales, ni siquiera cuando el horario de recogida coincida con el horario de actividad del usuario o dispongan de servicio de vigilante.

10. No se permite el depósito en estos contenedores de otros residuos que puedan contaminar el papel y el cartón y hacer inviable su reciclaje (plástico film, poliespán, flejes de plástico o metálicos, virutas de madera etc.), pudiendo el servicio de recogida rechazar la carga una vez comprobado su contenido.

11. En el caso de que se comprobara que en el contenedor se han introducido residuos considerados como peligrosos, el servicio de recogida rechazará y el responsable del servicio informará a los Servicios Técnicos y Jurídicos de la Mancomunidad para que estos inicien el correspondiente expediente sancionador.

*16. artikulua. Papera eta kartoia gaika biltzeko ordutegia.*

1. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa gutxienez astean behin egingo da. Maiztasun hau benetako beharren arabera aldatu ahal izango da, baina horretarako aurrez Sasieta mankomunitateko Lehendakariaren ebazpena beharko da. Zerbitzuaren erabiltzailearen batek, arrazoi justifikatuak direla eta, hondakinak astean bi aldiz biltzea behar badu, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei jakinarazi beharko dio, zerbitzua arrazionalizatzeko, edukiontzi gehiago emanaz eta/edo bilketa-maiztasuna handituz.

2. Edukiontziak gauetz hustuko dira, 20,00ak eta 03,30 bitartean.

3. Bilketa-eguna jaieguna baldin bada, bezperara aurreratu edo hurrengora atzeratuko da, Sasieta mankomunitateko web orrian dagokion oharra jakinaraziz: [www.sasieta.net](http://www.sasieta.net)

VI. ATALA. Egurraren gaikako bilketa-zerbitzua

*17. artikulua. Egurra gaika biltzea.*

Honelako hondakinak gaika biltzeko zerbitzua ondorengo zehaztapenekin bat etorritz egingo da:

1. Berrerabiliz, birziklatuz edo balorizazio energetiko bidez berreskuratuz daitezkeen paletak eta egurrezko bilgarriak eta pusketak bilduko dira.

2. Egun hondakinak establezimendu, komertzio, industria edo lokal barruan gordeko dira beti eta ez da beharrezkoa izango edukiontzi batean sartuta egotea.

3. Zerbitzuaren erabiltzailearen batek egur pusketak txiki ugari sortzen baditu eta bai berari eta baita bilketa zerbitzuari maneiatzea zaila gertatzen bazaio, orduan mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko dio, mankomunitateak erabiltzaileari edukiontzi berezi bat emateko. Edukiontzi hori mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek onartutako modelo normalizatua izango da. Horretarako, hasera batean, kolore berdeko edukiontzi bat erabiltzea aurreikusitako da, 1.100 litrotako ahalmena duena, dentsitate altuko injekzio bidezko polietileno fabrikatutakoa. Mankomunitateak zerbitzuarentzako egokitzat jotzen dituen beste edukiontzi mota batzuk edo hondakinak biltzeko beste sistema batzuk erabiltzeko eskubidea izango du. Edukiontzi guztiak mankomunitatearen logotipo serigrafiatuta eramango dute eta norena den jakiteko termoinpresio bidez grabatutako zenbaki korrelatiboa, zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzari izendatuko zaiona.

4. Mankomunitateak edo bilketa-zerbitzuak establezimendu, komertzio, industria edo lokal bakoitzari zuzenean egurra jasotzeko emandako edukiontziak erabili ahal izango dira soilik. Edukiontzi hauek derrigorrez lokalaren barruan egongo dira.

5. Paletak, egurrezko bilgarriak eta tamaina txikiko egur pusketak jasotzeko edukiontziak egunez hustuko dira eta horretarako, bilketa-bezperan, ekoizleek euren edukiontziak 18,00ak eta 21,00ak bitartean edo beranduen, bilketa-eguneko goizeko 8,00ak baino lehen, aterako dituzte bere lokaleko atearen ondora, bilketa-zerbitzuak eragozpenik gabe iristeko tokietan jarri. Dena dela, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei dagokien toki hauek zehaztea.

*Artículo 16. Horario de recogida selectiva de papel-cartón.*

1. La recogida selectiva de papel-cartón se realizará con una frecuencia mínima de una vez por semana. Esta frecuencia podrá ser modificada en función de las necesidades reales, previa Resolución del Presidente de la Mancomunidad Sasieta. En el caso de que algún usuario del servicio precisara por motivos justificados una segunda recogida semanal, deberá así hacérselo saber a los Servicios Técnicos de la Mancomunidad al objeto de racionalizar el servicio, dotándole de un mayor número de contenedores y/o aumentando la frecuencia de recogida.

2. Los contenedores se vaciarán en horario nocturno, entre las 20,00 y las 03,30 h.

3. En caso de que la recogida coincida con un día festivo, está se trasladará al día inmediatamente anterior o posterior, anunciándose el aviso correspondiente en la página web de la Mancomunidad Sasieta: [www.sasieta.net](http://www.sasieta.net)

SECCION VI. Del servicio de recogida selectiva de madera

*Artículo 17. Recogida selectiva de madera.*

El servicio de recogida selectiva de este tipo de residuos se realizará de acuerdo a las siguientes especificaciones:

1. Recogida de palets, embalajes y fragmentos de madera que pueden ser recuperados mediante su reutilización, reciclado o valorización energética.

2. Los residuos de madera se almacenarán en todo momento en el interior del establecimiento, comercio, industria o local del productor, no siendo preciso que estos estén en contenedor alguno.

